

GANADUEN GAÑEAN JOLASA.



—Gaur ganaduen gañean itz egin bear degu, zuk ala nai badezu.

—Gusto andiarekin entzungo det esan nai didazun guztia.

—Ganaduak nai du garbitasun andia.

Jaten eman bear zayo maiz eta guchi aldian.

Gu bezelase dira animaliak.

Obe da guchiseago jaten emango bazayote ere, garbi idukitzea.

Egongo dira gizenagoak, alayagoak eta osasun obekoak.

—Askotan aunditzen da aberea, ¿ez da ala?

—Bai, aunditzen da belar bustia jaten duenean.

Ara au gertatzen daneko errezetak.

Errezeta esandako gaitzarentzat.

Gatz amoniakoren espiritua, onza bat.

Petroleo beltzaren olio, bi onza: nastuta.

Bestea.

Artuarazten zayo abereari ochaba bat jenzianaren zaña austua.

Belar berotua ohea da ganaduarentzat; ardo irakiña ohea baño; eta ganaduak gogo obearekin jaten du, zergatik du gusto ohea.

Argatik beragatik askoz obeto dijeritzen du.

Asko lekutan belarra bildu, piska bat busti, trinkotu eskuakin eta uzten dute.

Berotzen asten dan orduan zabaltzen dure eta ematen diote ganaduari.

Gatza chit asko gustatzen zayo abereari, eta chit on egiten dio piskacho batek; zergatik gatzarekiko jana askoz obeto dijeritzen da, eta gatza jaten duen aberearen aragiak du askoz gusto ohea.

Au ezagutzen da gatzua deritzan gatza dan lurretan dabiltzan zikiroen aragian.

Gaizkitzen danean eman bear zayo batez ere gatza ganaduari.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.



GANADUEN GAÑEAN JOLASA.



—Ezin esan dizazuket zer gogoz zure jolasa entzuten dedan: otoi-tzen zaitut jarrai dezazula orain daño bezala.

—Atsegin andiarekin jarraituko det, ala nai dezun ezkeroz.

Abereen gaitzik geienak ardura gabetik oi datoz.

Bustiroa da abereentzat guretzat bezala etsairik andiena.

Belar bustiak aunditzen dituen bezela, etzauntz bustiak eritzen ditu.

Argatik urte bustietan eman bear zaiote jaten legor piska bat, eta al bait guchia bota bear dira larrera.

Batezere beaute iduki etzauntza legorra.

Abereari ederretsitzen ez dion nekazaria ez da nekazaria; zeren elerik gabe ez da gorotzik, eta gorotzik gabe ez da uztarik.

Beste aldetik berriz bazka gabe ez da abererik.

Bazkak, eleak eta lur landuak berdin egon bear dute.

Iñork ez daki lurrak zenbat eman dezakean.

Esan oi da egiaz, artzen duen ainbat ematen duela.

Lurrik ongiena landua da apurtuena dagoana.

Ez du nekazariak lur landu gaberik iduki bear, al bait.

Zenbat eta aberea denbora geiagoan dagoan ukulluan anbat eta obeago; zeren zimauro geiago izango du nekazariak.

Ez du lurrak etsai andiagorik elearen beatzala baño; buztin lurrak diran tokietan beintzat.

Nagusiak eman bear dizka lurrak maisterrari egoitz onean; beste-la ez du nekazaritza onik egingo.

Badira denborak eta giroak igarotzen utzi bear ez diranak; ala ereiteko nola jorratzeko eta itaitzeko.

Argatik bear du esku-arte nekazariak ona izateko; zeren giroa igarotzen uzten badu nekazaritza charra egingo du; eta giroa igarotzen ez uzteko bear dira jornaleroak iñoiz.

GANADUEN GAÑEAN JOLASA.



—¿Zeren gañean jardungo degu gaurko arratsaldean?

—Zuk nai dezunaren gañean.

—Esan dizut len ere elea gu bezin kuperatia dala, non eta basatia ez dan.

Orain esango dizut eman bear zayola janaria albait egosia.

Askoz obeto chegosten du, batezere gatz piška bat ematen bazayo.

Badakizu zenbat gustatzen zayon gatza ele mueta guztiari.

Noizean bein piška bat ematearekin asko gaitzetatik legardatzen dira.

Lastima da egon oi dan bezin garesti egotea gatza.

Gutziz on andia egingo lioke eleari egunoroko gatz piškacho batek; zeren ematen du jateko zalea eta chegosten laguntzen du guztiz: gañera lurren ongarrirako ere guztiz da ona.

Badakit jana egostea eta gatza ematea gauza garestia dala; baña on da jakitea, batezere ganadua miñez dagoaneko.

Ez du ezerk ere ematen irabazi geiago abereak baño.

Argatik bear da jakin zer dan ona eta zer ez elearentzat.

Esan dizut eman bear zayola jaten guchi eta maiz.

Bear duela garbitasun andia eta etzauntz idorra.

Egon bear du albait ikuskiñean zer gerta ere, eta izutia dalako.

Abere mota asko arkitzen dira.

Bikor mota eta aragi mota.

Badira beyak jaten duten guztia esne biurtzen zayotenak.

Oro bat gertatzen da abere illedunarekin.

Batzuek dute ille ona eta aragi charra, besteak aragi ona eta ille charra.

Badira atzegira gizentzen diranak eta ogei eta bost librako opak dituztenak.

Arkumeak izan oi du aitaren ille mota eta aragia amarena.

Belar chikia dan tokian ganadu chikia dala esan oi da, eta belar andia dan tokian ganadu andia.

Erri bakoitzean ikusi bear da zer abere mot konbeni dan.

Toki apitetan eta amiltzak diranetan ez da ganadu andirik konbeni; toki zelayetan berriz ganadu andia ohea da chikia baño.

AGUSTIN PASCUAL DE ITURRIAGA.

LA ESCUELA CRISTIANA DE DEUSTO.

Leemos en nuestro apreciable colega *El Noticiero Bilbaino* del 16 del corriente:

«Ayer á las once de la mañana se verificó en la vecina anteiglesia de Deusto la solemne inauguracion del establecimiento docente dirigido por los hermanos de las Escuelas cristianas, fundado por la piedad y la ilustracion del Sr. D. Gabriel María de Ibarra, bajo la advocacion de Nuestra Señora del Rosario, como piadoso recuerdo de la finada y digna esposa de tan buen bizcaino.

No habiendo podido asistir el Sr. Gobernador civil por sus ocupaciones, presidió el acto, por delegacion del mismo señor, el director y catedrático del Instituto Bizcaino, Sr. D. Fernando Mieg, con asistencia, en representacion de la Junta provincial de primera enseñanza de Bizcaya, de los Sres. D. Pedro de Castañares, arcipreste y vocal de la junta, y D. Joaquin Nuñez y D. Alvaro Saenz, inspector y secretario respectivamente de la misma. Tambien asistieron el Ayuntamiento de Deusto é individuos de la Junta local de instruccion primaria. Como no habia habido invitaciones de particulares, solo asistieron en este concepto algunas señoras y caballeros pertenecientes á allegados á la familia del fundador, el director de todas las escuelas cristianas de España y el que dirige la de Castro-Urdiales, como tambien, naturalmente, los tres hermanos á cuyo cargo estarán las de Deusto.